

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

#### 133/2024 Foru Agindua, abenduaren 9koa, 2024ko Arabako Lurralde Historikoan eta Trebiñuko enklabean gizarte- berrikuntzako sarien deialdia esleitu gabe uzten duena

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 23ko 449/2024 Erabakiaren bidez, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabea gizarte berrikuntzako Fisa sarien deialdia onetsi zen, gehenez 10.000,00 euroko zuzkidurarekin.

Gizarte berrikuntzako Fisa 2024 sarien helburu nagusia da zerbitzu, produktu eta eredu berrien proiektuak eta ekimenak sustatzea, gizarte arazo bati erantzuteko edo egungo alternatibek baino modu eraginkorragoan aseko dituen premia bat estaltzeko, edo gizarte harreman, sinergia eta lankidetzaren eredu berriak sortzeko, gizartearen erronka handiei aurre egiteko beharrezkoak diren gizarte portaeraren aldaketak sustatze aldera.

Gizarte berrikuntzako Fisa 2024 sariak ebazteko balorazio batzordea honako hauek osatu dute:

- Goizalde Atxutegi Rodríguez.
- Iñaki Artaza Artabe.
- Joseba Koldo Pérez de Heredia Arbígano.

Epaimahaiko idazkari gisa Joseba Arana Quintano jardun da.

Sari hauetarako hautagaiak aurkezteko epea amaitu ondoren, epaimahaia bildu zen 2024ko azaroaren 20an, eta erabakia hartu zuen, hartarako egindako aktan adierazten den bezala.

Proiektuen gainean eztabaidatu eta haiei puntuazioa eman ondoren, epaimahaia aho batez proposatu du saria eman gabe uztea, aurkeztutako hautagaitzetako batek ere ez baitu egiaztatu berrikuntzako merezimendu nahikorik, Diputatu Nagusiaren Sailak eman beharreko sariak arautzen dituzten oinarri orokorrak onesten dituen ekainaren 21eko 26/2022 Foru Dekretuaren laugarren oinarriaren 2.b puntuan jasotakoari jarraituz.

Hala ere, epaimahaia bi hautagaiek aurkeztutako proiektuetan hartutako jardunbide egokiak nabarmendu ditu, eta ildo horri jarraitzeko eskatu du.

Horiek horrela, proposatzen da esleitu gabe uztea Fisa 2024 sariak emateko prozedura eta balio gabe uztea Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko "25202. G/920250/48100285 FISA sariak" aurrekontu partidaren konturako 10.000,00 euroko zenbateko baimendua.

Nahitaezko txostenak aztertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Esleitu gabe uztea Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 23ko 449/2024 Erabakiaren bidez deitutako Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabea gizarte berrikuntzako Fisa 2024 sariak.

Bigarrena. Balio gabe uztea Arabako Foru Aldundiaren 2024ra luzatutako 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko "25202. G/920250/48100285 Fisa sariak" aurrekontu partidaren konturako 10.000,00 euroko zenbateko baimendua.

Hirugarrena. Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, Vitoria - Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, edo, bestela, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari berari, hilabeteko epean, bata nola bestea jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 9a

*Berdintasun, Euskara eta Gobernantza foru diputatua*  
**IÑAKI GURTUBAI ARTETXE**

*Euskararen eta Gobernu Irekiaren zuzendaria*  
**JOSEBA KOLDO PÉREZ DE HEREDIA ARBÍGANO**